

tzutan Jainkoen ondorengotzat eta horien ordezkartzat hartu izan dituzte: hala nola Japonian, Mesopotamian, Txinan. Erromatar enperadoreek beren karguaren bidez beretzen omen zuten Jainkozkoatasuna.

Horrenbestearaino iritsi gabe ere, kristautasunaren tradizio ekialdetar nahiz mendebaldarrean sakratutzat hartu izan da erregetza mendeetan zehar, sekulartasun modernoa eta estatuaren eta Elizaren arteko bereizkuntza burutu den arte. *Sagarapen bereziaz adierazten zuten sakratutasun hori. Bere burua juduen errege egin omen zuelako arrazoia eman zuten erromatar agintariek Jesus heriotzara galtzeko. Testamentu Berriak *mesiarekin lotzen du errege titulua. Eliza Katolikoak Kristo erregea titulua goraipatu nahi izan du, izen bereko jaia ere ipiniz eta ospatuz.

Ik. Jainkoaren erreinua.

Errege apaiza

Hainbat Herritan erregetza eta apaizgoa aski lotuta egon dira. Jainkoaren ordezkari omenenez, erregeari berari zegokion aurrenik *erlijiozikuneko buru izatea, apaiz nagusi gisa. Kristau-teologiaren arabera, Jesukristok erregetza eta apaizgo nagusia, biak bateratu ditu beragan.

Ik. Apaiz nagusia; Erregea.

Erregela, erlijiosoen

Ik. Erlijiosoen erregela.

Erregeladuna, klero

Ik. Klero erregeladuna.

Erregua(k)

Eskari-otoitza ere esaten da. Jainkoari edo *santuei mesede edo ondasunen bat eskatzeko otoitza da: norberarentzat nahiz besterentzat. Pluralean erabiltzen du sarritan Eliz hizkerak, norbaiten alde Jainkoari zuzentzen zaizkion otoitzen multzoa adierazteko. Horrela Elizaren erreguak, santuen erreguak, Kristoren erreguak alpatzen dira, Jainkoaren aurrean fededun bizien nahiz hilen alde egiten duten otoitzezko bitartekotza adierazteko.

Ik. Otoitza, 2; Bitartekotza; Bitarterregua.

Erreguteak (Errogatibak)

Igokunde- edo Salbatore-ostegunaren aurreko hiru egunetan *errito erromatarrean egiten zuten liturgi modua, *prozesioan ibiliz eta *litaniak abestuz. Horren jatorria V. mendean kokatzen bada, eta izurrite his-

torikoren bati lotuta badago ere, mendebaldeko Eliza osora zabaltzean, soro eta landen gain otoitz egiteko eta uzta ona eskatzeko helburua hartu zuen. 1969an Eliza Katolikoak kendu egin ditu erregute horiek, eta ordeztatu, gaurko industri gizarteari begira, gizadiaren, lurra eta giza langintzaren aldeko otoitzaldiak ipini ditu, urtean zehar egitekoak.

Erreoparia

Judu-erlijioko *holokaustoa. Horrela deritzen, eskainitako oparia suntsitzeraino erretzen delako; erabateko *opari bihurtzen da, bada, erretzen den okelak jateko balio ez duelako. Juduen artean ohizkoa zen horrelako *oparigintza.

Errepika

Errito latinoko otoitz-mota da, gehiengotan Bibliatik iradokia, eta Eskriturako txatalkedo bertsetak eta leloa txandaturaz egiten dena.

Erretaula

Elizen arkitekturan, aldare ostean sarritan egon ohi den horma apaindua, edo panel handia, irudiz eta edergarri ornatua.

Erretorea

1. Parrokia edo kapitulu-eliza edo komentu-eliza ez den beste edozein elizaren ardura duen apaiza.

Herri batzutan parrokia esateko erabili ohi da, hain zuzen, erretorea titulua.

2. Josulagunen *Konstituzioen arabera, etxe arruntetako nagusiari ematen diote erretorea izena.

3. Bestalde, hainbat Eliz instituziotako (unibertsitateko, *seminarioko, *basilikako) kargudun nagusiak ere erretorea edo errektorea izena hartzen du.

Ik. Abadea; Parrokia.

Erretreta izpirituala

Ik. Gogarte-aldi izpirituala.

Errittoa

1. Sin.: Zeremonia; ohikunea. Orokorki, *erlijiozikunetako keinu edo ageriko egintza bakoitza (kultur antropologian "multzoa" deritzana), ondo arauturik edo ohituraz finkaturik dagoena: eskuak ezartzeko errittoa, ura isurtzeko errittoa, bedeinkatzeko errittoa, etab.

2. Sin.: Zeremonia. Zehazkiago erabiltzen da, erlijiozko ihardunaldi unitario bat betetzeko keinuek, *zeremoniek eta bestelako

Errito alexandriarra

eginbeharrek osotzen duten "erakundea" (kultur antropologiaren arabera) edo ospakizuna: horrela esaten da: sarbide-errittoa, mezaren errittoa, opariaren errittoa, bataioko errittoa, etab. Maila honetan *erlijioakizuna eta errittoa ere sinonimoak dira. Ik. Kultura.

3. Kristauen artean, berriz, errittoa badu erabilera eta esanahi zabalagorik: Eliza bakoitzaren *gurtza eta *liturgia osoaren eraketa berezia deitzen da horrela: errito latinoa, *errito bizantziarra, *errito armeniarra. Mendebaldean errito latinoa nagusitu da aspalditik; Eliza ekialdetarretan, berriz, hainbat errito ezberdin sortu ziren, eta indarrean dira.

Errito tradizional horietako bakoitza, gehienetan hizkuntza berezian eta elkartearen bestelako ihardunbide, tradizio eta araubide autonomoari lotuta egon ohi da. Hala ere, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, errito latinoan herri-hizkuntza guztiei eman zaie sarrera. Ik. Hizkuntza eta erlijioa.

* * * *

Gurtza baino zabalagoa da errittoa; azti-penezko edo magiazko errittoa ere badaude, *gurtzaren esanahi hertsian sartzen ez direnak; bestalde, erritoren zentzua eta helburua izan daitezke, erlijiozko edozein sineskizun modu sinbolikoz adieraztea, bereziki jainkoakoaren bertakotasuna eta agerpena keinuz, hotsez, eta bestelako egintza agerikoz nolabait sinbolikoki irudikatzea. Horiei ere errittoa deritzate. Hala ere, bi alderdiak: jainkoakoaren errebelazioa eta gizakiaren gurtzapenezko eta magiazko erantzuna, oso loturik daude elkarrekin.

Errittoa gehienetan, keinuen esanahia adierazten duten hitzekin batera, edota *otoitzarekin batera joan ohi da. Ageriko keinua zera mekaniko eta ez barneko sentipenen adierazgarri bihurtzen denean, teatro-kutsua hartzen dute erritoeak, eta erritoke-riara erortzen da erlijioa.

Erritotoetako keinuak, zeremoniak, gauzak, eta ageriko egintzak barneko gurtzazko jarrreraren eta *fedearen agerbide eta sinbolo izatetik zerbait absolutu eta autonomo izatera igarotzen direnean, *magiaren eta *idolatriaren atarian edo barrutian jartzen da fededuna.

Erlijio bakoitzak bere errittoa ditu, gehienbat bere fedearen adierazgarri direnak; baina sarritan esanahi kultural zabalagoa izan ohi dute. Hortik sortu izan da kristautasunak, e.b., beste erlijioetako edo erlijioekin lotutako errittoa beretzearen arazoa; oso ezaguna izan da *misioren historian, errito txinatarren eta errito malaba-

rren inguruko borroka, Eliza Katolikoaren barruan XVII. mendeaz gero luzatu zena.

Ik. Zeremonia; Erritualismoa; Liturgia.

Paulo Agirrebaltzategi

Errito alexandriarra

Bereziki Egyptoko eta Ethiopiako kristauen liturgia eta erlijioakera. Hori erabiltzen dute bertako monofisitek, Alexandriako *patriarkatza ortodoxoak, baita Herri horietako katolikoek ere. Arabiera, koptoa eta greziera erabiltzen ditu errito horrek.

Errito koptoa ere deitzen da.

Ik. Errito koptoa; Eliza koptoa; Eliza ethiopiarra; Monofisismoa; Errittoa, 3.

Errito anbrosiarra

Milanoko diozesian duten meza-liturgia berezia. Antzinako Galiako liturgiarekin kidedetasunik badu; baina handiena errito erromatarrekin du.

Ik. Errito erromatarra; Errittoa, 3.

Errito antiokiarra

Errito syriarra ere esaten da. Orokorki, Syriako Antiokian sortu eta beste hainbat erritoren (bizantziararen, marondararen, armeniarren, kaldeararen, etab.en) iturburua, errito alexandriarretik oso berezia. Bereizkuntza nagusi bat egiten dute, ordea: Ekialdeko errito syriarra edo kaldearra, eta mendebaldeko errito syriarra edo jakobita.

Jatorrizko tankeran syro-jakobitek (Antiokiako patriarkatzako syro-jakobitek) erabiltzen dute. Syriera eta arabiera hizkuntzak erabiltzen ditu. Jerusalemgo patriarkatza latinoak ere errito horixe erabiltzen du.

Ik. Errittoa, 3; Errito alexandriarra.

Errito armeniarra

Errito bizantziarretik eratorria. Armeniako monofisitek baita katolikoek ere erabiltzen dute.

Ik. Errittoa, 3; Monofisismoa.

Errito bizantziarra

Errito jakobitatik eratorritako forma da. Berau da zabalduena munduan, errito latinoaren ondoren, bai katolikoek eta bai ortodoxoen artean. Hainbat hizkuntza erabiltzen du errito horrek, Herri ezberdinen arabera: greziera, arabiera, albaniera, hungariera, errumaniera, eslaviarra zaharra.

Ik. Errittoa, 3; Eliza jakobita.